

2/2018 FORU ARAUA, martxoaren 21ekoa. Honen bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauek: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena (PASARTEA) ⁽¹⁾ (BAO Martxoaren 27koa)

ATARIKOA

2014ko ekitalditik aurrerako ondorioak dituen zuzeneko zergapetzearen eredu berri bat indarrean jarri izanak Bizkaian burutu egin zuen ondarearen gaineko zerga 2013ko ekitaldirako berreskuratzearekin abiatu zen erreforma-prozesua. Eredu berri horrek indarrean hiru urte daramatzanean ebaluatu egin dira zer emaitza lortu diren, egiaztatzearen ea zenbateraino erantzun zaien eredu hori onartzerakoan jadetsi nahi ziren helburuei, zeinak baitziren, Bizkaia modernoago, solidarioago, iraunkorrago eta lehiakorragoa lortzea, eta, bide batez, zerga-sistema bidezkoago, progresiboago eta eraginkorrago bat sustatzea. Bada, analisia amaituta, ondorioztatu da Bizkaian egindako zuzeneko zergapetzearen erreforma lagungarria izan dela, hein handi batean, haren bidez lortu nahi ziren helburuak erdiesteko.

Hori dela eta, foru-arau honek ez du besterik egiten zenbait aldaketa beharrezko sartzeari baino gaur dauzkagun tributuetan, helburuok indartu eta haien betetze-maila handitzeko. Ekonomia-jardueraren egungo suspertzeak aldaketa horiek egitea eskatzen du, fiskalitatea erabiliz susperraldi ekonomikoa sendotzen laguntzeko, baina ahaztu gabe Bizkaiak egun dituen zerbitzu publikoen maila mantentzeko beharrezkoa den finantza-nahikotasuna.

Horretarako, foru-arau honek zenbait tributu-neurri berritzaile sartzen ditu edo aldatu eta doitu egiten ditu zuzeneko zergapetzearen mota nagusiei lotuta indarrean dauden tributu-tratamenduetako batzuk, titulu bereizi bi erabiliz horretarako.

I. tituluak hamaika artikulua jasotzen ditu, eta, haien bidez, batetik, berrikuntza sustatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzeko eta kapitalizazio produktiborako diren funts europar jakin batzuen tributu-tratamendua ezartzen da, eta, bestetik, aurreko horrez gainera, neurri berritzaileak inplementatzen dira sektore pribatuak ere parte har dezan funts horiekin Europa 2020 estrategiaren esparruan lortu nahi diren helburuak lortzeko orduan.

(1) Testu hau dokumentazio-tresna bat baino ez da, ez du eragin juridikorik. Bizkaiko Foru Aldundiak ez du testuaren erantzukizunik bere gain hartzen. Egin beharreko ekintzen benetako bertsioak, beren atarikoak barne, dagokion aldizkari ofizialean argitaratutakoak dira.

Estrategia horrek ezartzen du Europa 2020ren gunea hiru lehentasun izan behar direla, elkar indartzen dutenak eta Europako merkatu-ekonomia sozialak XXI. menderako izango duen irudia eskaintzen dutenak. Hauek dira:

- Hazkunde adimentsua: ezagutzen eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea, eta horrek esan nahi du ezagutza eta berrikuntza gure etorkizuneko haz-kundearen bultzatzaile gisa finkatu behar direla. Baina arrakasta izateko, horrekin batera, espiritu ekintzailea eta finantzaketa lortu eta arreta berezia jarri behar zaie erabiltzaileen beharrezari eta merkatuaren aukerei.
- Hazkunde jasangarria: sustatu behar den ekonomiak eraginkortasun handiagoz baliatu behar ditu baliabideak, berdeagoa eta lehiakorragoa izan behar du, Euro-pak prozesu eta teknologia berriak garatzeko lehiari duen lidergoa baliatu behar du, sare adimentsuen garapena bizkortu behar du EBN eta gure enpresen eta gure ETEen lehiarako abantailak indartu behar ditu, lagungarri izan behar du ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesiorako, eta, gainera, baliabideen erabilera eraginkorrari balio ematen lagundu behar die kontsumitzaileei.
- Hazkunde integratzailea: enplegu maila handia duen ekonomia bat sustatu behar da, kualifikazioetan inbertituz, txirotasunaren aurka borrokatuz eta lan-merkatuak zein prestakuntzako eta gizarte-babeseko sistemak modernizatuz, aldatetari aurre hartzen eta hura kudeatzen laguntzeko pertsonen, gizarte kohesionatua eraikitzen laguntzeko, non aukeratarako sarbidea eta aukera-berdintasuna bermatuko diren, eta, hala, indartu egingo da ekonomiaren, gizartearen eta lurraldearen kohesioa.

Helburu horiek gauzatu ahal izateko, Europako erakundeek hiru tresna abiarazi dituzte estrategia horren barruan. Bada, tresna horiek, berritasun moduan, merkataritzako arau komun batzuk finkatzen dituzte, Europa osorako, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzaile hori erdiestea ahalbidetu behar duten enpresa-ekimenen finantzaketan lankidetzat publiko-pribatua ahalbidetzeko.

Hala, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 (EB) Erregelamenduak (Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzkoa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 (EB) Erregelamenduak (Europako gizarte-ekintzailetzako funtsei buruzkoa) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduak (Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzkoa) oinarri juridikoak jarri dituzte ekimen horien finantza-ketan parte-hartze kolektiboa ahalbidetzeko, estatu kide bakoitzeko araudian ezarritako finantza-tresnen mugek haien eraginkortasuna murriztu gabe, estrategia hori betetzeko garrantzitsuenak diren jardueren finantzaketan Europako herrialdeen parte-hartzea lortu nahian.

Lehenengo erregelamenduaren arabera, arrisku-kapitalak, oro-har, enpresa oso txikiak finantzatzeko eta aholkatzen ditu, zeinak hasierako faseetan baitaude eta hazteko eta hedatzeko ahalmen handia eskaintzen baitute. Arrisku-kapitaleko funtsek, beren jar-dunaren bitartez, hazkunde ekonomikoa bizkortzen dute, enplegua sortzen eta kapitala mobilizatzen laguntzen dute, enpresa berritzaileen ezarpena eta hedapena sustatzen dute, enpresa horiek ikerketa eta garapenean egiten duten inbertsioa handitzen dute eta enpresa-espirtua, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzen dute, Europa 2020 Estrategiaren helburuen ildotik.

Europako gizarte-ekintzailetzako funtsei dagokienez, erregelamendu horren abiapuntua da gero eta inbertsiogile gehiagok, finantza-errentagarritasun hutsa bilatu beharrean, gizarte-izaerako helburuak ere bilatzen dituztela. Hori dela-eta, Batasunean gizarte-inbertsioko merkatu bat sortuz joan da, hein batean gizarte-enpresetan inbertitzen duten inbertsio-funtsek osatua. Inbertsio-funts horien jardura honetan datza: finantza-keta ematen diete gizarte-aldaketak bultzatzen dituzten gizarte-enpresei, alegia, gizarte-arazoentzat irtenbide berritzaileak eskaini eta Europa 2020 strategiaren helburuak lortzeko laguntza baliotsua ematen dutenei.

Eta, azkenik, Europako epe luzerako inbertsio-funtsei dagokienez, funtsok finantza-keta iraunkorra ematen dute bai askotariko azpiegitura-proiektuentzat, bai erraz identifika daitekeen eroslerik ez duten kapital- nahiz zor-tresnak jaulkitzen dituzten kotizaziorik gabeko enpresentzat

edo kotizatutako enpresa txiki eta ertainentzat, eta, hala eginez, Europar Batasuneko ekonomia erreala finantzatzen eta haren politikak betearazten la-guntzen dute.

Hiru finantza-tresna horiek Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 114. artikuluan xedatutakoaren babespean sortu dira. Artikulu horrek xedatzen duenez, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak, legegintzako prozedura arruntaren arabera, eta Ekonomia eta Gizarte Komiteari kontsulta egin ondoren, estatu kideetako legezko, erregelamenduzko eta administraziozko xedapenak elkarri hurbiltzeko neurriak hartuko dituzte, barne-merkatua ezarri edo jardunean jartzeko helburua daukatenean. Bada, xedapen fiskalak prozedura horretatik kanpo daude. Izan ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak argi utzi du zuzeneko fiskalitatea estatu kideen eskumena dela, Batasunari transferitu gabea, eta, beraz, estatu kideetako agintari eskudunen erantzukizuna da Batasuneko zuzenbideak ezarritako finantza-tresnen erabileraren ondorio fiskalak arautzea.

Bestalde, Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarrian, Euskal Autonomia Erkidegoaren Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan (estatutu hori 1979ko abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onartu zen) eta Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean (2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zen) xedatutakoaren arabera, lurralde historikoetako foru-erakundeei dagokie beren tributu-arau-bidea mantendu, ezarri eta arautzeko eskumena.

Hortaz, ezinbestekoa da Europako funts horien tributu-tratamendua ezartzea, Bizkai-ko Lurralde Historikoaren eremuan ziurtasun juridikoz erabili ahal izateko eta ezarri diren helburuetarako baliagarriak izan ahal izateko. Hori dela-eta, foru-arau honen I. tituluaren helburuetako bat funts horiei nahiz haien partaideei tratamendu fiskal egokia ematea da, inbertsio kolektiboko erakundeen eta arrisku-kapitaleko funts edo entitateen tributazioaren sistematika kontuan hartuz, tributu-tratamendu neutrala eta beren ezaugarriekin bat datorrena emateko.

Egia da, bestalde, kasu batzuetan, hala nola Europako epe luzerako inbertsio-funtsen kasuan, inbertsio kolektiboko erakundeei (haiekin pareka daitezke, haietatik gertuen baitaude) Sozietateen gaineko Zergan ezarritako karga-tasa aplikatzeko eskubidea aitortzeko, partaidetza pertsona kopuru txiki baten esku oso pilatuta ez egotea bermatu behar da, tresna sortzeko izan zen inbertsio kolektiboko xedea errespetatu gabe erabil bailezakete bestela; horretarako, beharrezkoa da tributuen ondorioetarako zehatz karakterizatzea funts horiek.

Aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren lehentasunetako bat da, Bizkaiko Batzar Nagusien egungo agintaldian, jarduera ekonomikoaren garapena bermatzea zein lortzea aberastasuna eta enplegua sortzen direla eta lurraldea era adimentsu, inklusibo eta jasangarria garatzen dela. Beraz, bere egiten ditu Europa 2020 estrategiaren helburu nagusiak, Bizkaia Goazen 2030 proiektuan islatzen denez.

Argi dago epe luzerako estrategia biak helburu berberak gidatzen dituztela eta printzipio gidari berberak ikus daitezkeela. Hortaz, foru-arau honen I. tituluari jasotzen den arauketaren bidez emaitzarik onena lor daiteke; izan ere, uztartu egiten ditu Europako Parlamentuak eta Kontseiluak ezarritako finantza-tresnak, batetik, eta, bestetik, Bizkaiko Foru Aldundiak jarduera ekonomikoaren finantzaketaren garapenarekin, enpresa-ehunaren kapitalizazio produktiboarekin eta ikerketa eta garapeneko zein berrikuntza teknologikoko jarduerak indartzearekin duen konpromisoa.

Gure lurralde historikoan 2014ko urtarrilaren 1az geroztik hasitako ekitaldietarako abiatu zen erreforma fiskalak gogoan hartu zituen jardunbide nagusi horiek, baina argi dago aipatu ditugun Europako finantza-tresnak nahiz Bizkaiko Foru Aldundiaren politika ekonomikoa bera sortu eta abiarazteak dakarrela tratamendu fiskal bat ezarri behar dela, errealitate berri hori ondoen egokitzen zaiona, eta, horretarako, eguneratzeak egin behar dira Ekonomia Itunak ezarritakoaren arabera lurralde historikoek arautzeko autonomia duten zergapetze-motetan.

Aldi berean, beste lehentasun bat ere agertzen zaigu: herritarrek parte har dezatela helburuon finantzaketan; izan ere, gizarteak bere aurrezkia mobilizatu behar du ditugun helburu kolektibo nagusiak lortu ahal izateko, ongizate handiagoa dakar-eta horrek. Sustatzearren herritarrek

parte har dezatela berrikuntza bultzatzeko Europako funtsei, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsei eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsei lotuta jarduera ekonomikoa garatzeko diren berrikuntza teknologikoko eta enpresa-kapitalizazioko proiektuen finantzaketan, foru-arau honek zenbait zerga-pizgarri ezartzen ditu zergadunen zuzeneko tributazioari eragiten dioten zergapetze-mota nagusietan.

Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsei dagokienez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan, %15eko murrizketa ezartzen da kuotan, gehienez 750 eurorainokoa, zergaldian partaidetzak eskuratzeko ordaindutako zenbatekoengatik nahiz haien eskuratzeko finantzatzeko kreditu-entitateetan gordetzen diren zenbatekoengatik. Horretarako, ordea, partaidetzak eta gordailuak bost urtez mantendu beharko dira. Neurri hori osatze-ko, Ondarearen gaineko Zergatik salbuesten dira eskuratutako partaidetzak. Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsei eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsei dagokienez, funtsotan partaidetzak eskuratzeko zerga-pizgarriak partaidetza horiek Ondarearen gaineko Zergatik eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergatik salbuestean daude. Amaitzeko klausula gisa eta emandako zerga-pizgarriek nahi diren helburuak betetzen dituztela bermatzeko, agirian bidez frogatzeko eta informatzeko betebeharrak ezartzen dira. Haien arauketa osatzeko, dagokion erregela-mendua garatu beharko da.

[...]

I. TITULUA

EUROPAKO ZENBAIT EPE LUZERAKO INBERTSIO-FUNTSEN TRIBUTU-TRATAMENDUA ETA BERRIKUNTZA, JARDUERA EKONOMIKOAREN FINANTZAKETA ZEIN KAPITALIZAZIO PRODUKTIBOA SUSTATZEKO TRIBUTUEN ARLOKO NEURRIAK

KAPITULUA HELBURUA

1. artikulua. Helburua.

Titulu honek Europako epe luzerako inbertsio-funtsen, Europako arrisku-kapitaleko funtsen eta Europako gizarte-ekintzailetzako funtsen zerga-trataera ezartzen du eta Europako funts horien bidez jarduera ekonomikoa garatzeko berrikuntza teknologikoko eta enpresa-kapitalizazioko proiektuen finantzazioa bultzatzeko egindako inbertsioa sustatzeko neurriak sartzen ditu Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-ordenamenduan.

Titulu honetan xedatutakoa Bizkaiko Lurralde Historikoko foru araudia aplikatzen zaien zergadunei aplikatuko zaie, Ekonomia Itunean eta dagozkien zergak arautzeko Foru Arauetan xedatutakoaren arabera.

II. KAPITULUA

EUROPAKO FUNTS BATZUEN ZERGA ARAUBIDEA

2. artikulua. Europako epe luzerako inbertsio-funtsen zerga-araubidea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 80. artikulua aldatu da. Hona hemen testu berria:

«80. artikulua. Europako epe luzerako inbertsio-funtsen zerga-araubidea.

1. Kapitulu honetan aurreikusitako araubidea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduan araututako Europako epe luzerako inbertsio-funtsei aplikatuko zaie, artikulua honetan xedatutako berezitasunekin.

2. Foru Arau honen 56. artikuluko 4. zenbakian jasotako zerga-tasa arestiko zenbakiak aipatzen dituen entitateei aplikatzeko baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Funtsak, gutxienez, euren ondarearen 100eko 95 inbertitu beharko du inbertsio-rako balio duten aktiboetan, Europako Parlamentu eta Kontseiluaren Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzko 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduaren 10. artikuluan xedatutakoaren arabera.

b) Inbertsiogileetatik inork ez du izango bere ondarearen 100eko 15 baino gehia-goko partaidetza funtsean, izan ditzakeen zuzeneko eta zeharkako partaidetzak kontuan hartuz, Foru Arau honen 42. artikuluan xedatutakoaren arabera lotuta dauden pertsona edo erakundeak barne.

Letra honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko erakundeetako inbertsiogileen partaidetzak, halakotzat hartuz Europako Parlamentu eta Kontseiluaren finantza-tresnen merkatuei buruzko eta 2002/92/EE Zuzentaraua eta 2011/61/EB Zuzentaraua aldatzen dituen 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauaren II. Eranskineko 1. idatz-zatiko 1., 2. eta 4. zenbakietan definitutakoak.»

3. artikulua. Europako arrisku-kapitaleko funtsen eta Europako gizarte-ekintzailatzako funtsen zerga-araubidea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 77. Artikuluari 11. zenbakia eranstean zaio. Hona hemen haren testua:

«11. Artikulu honetan aurreikusitako araubidea entitate hauei aplikatuko zaie:

a) Europako Parlamentu eta Kontseiluaren Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 (EB) Erregelamenduan araututako Europako arrisku-kapitaleko funtsei.

b) Europako Parlamentu eta Kontseiluaren Europako gizarte-ekintzailatzako funtsei buruzko 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 (EB) Erregelamenduan araututako Europako gizarte-ekintzailatzako funtsei.

Artikulu honetako 1. zenbakian xedatutakoa, ordea, aipatu Erregelamenduetan xedatutakoaren arabera inbertsio onargarriak diren balioetatik datozen errentei baino ez zaie aplikatuko.»

III KAPITULZUA EUROPAKO EPE LUZERAKO INBERTSIO FUNTS BATZUEN EZAUGARRIAK

4. artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak.

Tituluan xedatutakoaren ondoreetarako, berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 80. artikuluan xedatutakoa aplikatzen zaien Europako epe luzerako inbertsio-funtsak, baldintza hauek betetzen dituztenak:

- a) Haien helburu bakarra Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluan xedatutakoa aplikatzen zaien entitateek garatutako berrikuntza teknologikoko proiektuak finantzatzea izatea.

Ondorio horietarako, berrikuntza teknologikoko proiektuak izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 63. artikuluan ezarritako kenkarirako eskubidea sortzen duten jardueri lotutakoak. Horien barne sartzen dira ibilgetu materialeko eta ukaezineko elementu berrietan egindako inbertsioak, higiezin eta lursailak salbuetsita, berrikuntza teknologikoko proiektua garatzeko horiek eskuratzea behar denean.

- b) Funtsak ematen dituen maileguen zenbateko nominala 600.000 eurotik beherakoa izan behar da. Muga hori 1.500.000 eurokoa da, eta 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.
- c) Ematen dituzten maileguak itzultzeko epea gutxienez bost urtekoa izatea. Gehienez urtebeteko gabealdia ezarri ahalko da.
- d) Ematen dituzten maileguen ordainsaria Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 26. artikulua jasotzen duen berandutze-interes tasaren 100eko 75 baino handiagoa ez izatea.
- e) Maileguak elkar bermatzeko sozietate batek edo kauzio-seguru batez osorik bermatuta egotea.

- f) Mailegua ematea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 64. artikuluko 2. zenbakiak aipatzen duen berrikuntza teknologikoko proiektuaren zerga ondorioetarako kalifikazio txostena eskatzeari lotuta egotea.

Berrikuntza teknologikoko proiektuak ibilgetu materialeko eta ukaezineko elementu berrietan egindako inbertsioak barne hartzen dituenean, hizki honek adierazten duen proiektuaren ondorio fiskaletarako kalifikazio-txostenak adierazi egin behar izango ditu baita ere berrikuntza teknologikoko proiektua gauzatzeko beharrezkoak diren aktiboen inbertsioak.

Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio-funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikulu honetako a) eta f) letretan xedatutako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko erabili beharko dituzte euren partaideek ekarpena ordaindu eta urte beteko epean gehienez.

5. artikulua. Jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsak.

1. Titulu honetan xedatutakoaren ondoreetarako, jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko Europako funtsak izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 80. artikuluan xedatutakoa aplikatzen zaien Europako epe luzerako inbertsio-funtsak, artikulu honetako hurrengo zenbakietako baldintzak betetzen dituztenak:
2. Honako baldintzak betetzen dituzten Europako epe luzerako inbertsio-funtsek aurreko zenbakikoen izera izango dute:
 - a) Haien helburu bakarra ondorengo c) letzan ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateei euren jarduera ekonomikoak finantzatzeko epe luzerako maileguak ematea izatea. Hala, erakunde mailegu-hartzailearen aktiboaren ondasunen gaineko berme erreala sartu ahal izango da.
 - b) Ematen dituzten maileguen zenbateko nominala 500.000 eurotik gorakoa izatea.
 - c) Maileguak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 33. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateei ematea, antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen ez dutenak, edo bestela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduaren (Europako epe luzerako inbertsio- funtsei buruzkoak) 11. artikuluko 1. atalaren b) hizkiko ii) hitz-tartean aurreikusitako egoeran daudenak eta Foru Arau horren 13. artikuluko 3. idatz-zatiko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.
 - d) Ematen dituzten maileguak itzultzeko gutxieneko epea 5 urtekoa eta gehienekoa 15 urtekoa izatea eta haien ordainsariak interes finko bat izatea, eta hala dagokionean, erakundearen jarduera ekonomikoaren garapenaren arabera aldagarri bat izatea. Horrez gain, erakunde mailegu-hartzailearen aktiboaren ondasunen gaineko berme erreala ezarri den kasuetan, aipatutako bermea eratu duten ondasunek merkatuan duten balioaren garapenaren arabera.
 - e) Entitate mailegu-hartzaileek jasotako finantzazioa jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzeko, dauden beste batzuk zabaldu edo finkatzeko nahiz enplegu egonkorrak sortzeko, eta, tamainak, berritasunak nahiz egin behar diren inbertsioen arriskuak eraginda, kapitalen merkatuetan sartzeko zailtasunak dauzkaten enpresa-proiektuak gauzatzeko erabiltzea.
 - f) Entitate mailegu-hartzaileen lehenagoko zorra euren EBITDA hala 6 baino handiagoa ez izatea eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 47. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar ez izatea.
3. Honako baldintzak betetzen dituzten Europako epe luzerako inbertsio-funtsek ere artikulu honetako 1 zenbakikoen izera izango dute:

- a) Haien helburu bakarra ondorengo c) letran ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateei euren jarduera ekonomikoak finantzatzeko kapitalean edo funts propioetan parte hartzea izatea.
 - b) Kapitalean edo funts propioetan duten partaidetza zuzena gutxienez %5ekoa izatea, edo %3koa, berriz, partaidetutako sozietatearen akzioek bigarren mailako merkatu antolatu batean kotizatzen badute eta, betiere 500.000 eurotik gorakoa bada.
 - c) Partaidetutako entitateak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 33.1 artikuluan ezarritako baldintzak betetzea, antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen ez dutenak, edo bestela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduaren (Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzkoak) 11. Artikuluko atalaren b) hizkiko ii) hitzartean aurreikusitako egoeran daudenak eta Foru Arau horren 13. artikuluko 3. idatz-zatiko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.
 - d) Funtsak partaidetza mantentzea gutxienez 5 urtean eta gehienez 15 urtean.
 - e) Partaidetutako entitateek jasotako finantzazioa jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzeko, dauden beste batzuk zabaldu edo finkatzeko nahiz enplegu egonkorak sortzeko, eta, tamainak, berritasunak nahiz egin behar diren inbertsioen arriskuak eraginda, kapitalen merkatuetan sartzeko zailtasunak dauzkaten enpresa proiektuak gauzatzeko erabiltzea.
 - f) Partaidetutako entitateek aplikatu beharrik ez izatea Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 47. artikuluan ezarritakoa.
4. Artikulu honetako aurreko zenbakietako baldintzez gain, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsek beti bete beharko dute funtsaren ondarea elkar bermatzeko sozietate batek edo kauzio-aseguru batez bermatuta egotea, gutxienez, bere zenbatekoaren 100eko 5ean.
5. Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio-funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikulu honetako 2. zenbakian xedatutako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko edo artikulu honetako 3. zenbakian ezarritako baldintzak betetzen dituzten partaidetutako entitateen kapital ekarpenak edo funts propioak ordaintzeko erabili beharko dituzte euren partaideek ekarpena ordaindu eta urte beteko epean gehienez.

6. artikulua. Ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsak.

Titulu honetan zehaztutakoaren ondorioetarako, ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsak izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 80. artikuluan xedatutakoa aplikatzen zaien Europako epe luzerako inbertsio-funtsak, baldintza hauek betetzen dituztenak:

- a) Helburu bakarra ezohiko aktiboak eskuratzea denean ondorengo c) hizkian ezartzen diren baldintzak betetzen dituzten erakundeei emateko, eta bere jarduera ekonomikoaren garapenari eragiten diotenak.
- b) Eskuratutako ezohiko aktiboek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduaren (Europako epe luzerako inbertsio-funtsei buruzkoak) 10. artikuluko e) hizkian zehazten den balio bera edo altuagoa izatea.
- c) Ezohiko aktiboak Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 33. artikuluko 1. idatz-zatian ezarritako baldintzak betetzen dituzten entitateei ematea, antolatutako bigarren mailako merkatu batean kotizatzen ez dutenak, edo bestela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko apirilaren 29ko 2015/760 (EB) Erregelamenduaren (Europako epe luzerako inbertsio- funtsei buruzkoak) 11. artikuluko 1.

atalaren b) hizkiko ii) hitz-tartean aurreikusitako kasuan daudenak eta Foru Arau horren 13. artikuluko 3. idatz-zatiko a) eta c) letretan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak.

- d) Funtsean eskuratutako ezohiko aktiboen errentamendu-kontratuek gutxienez 5 urteko iraupena izatea.

Hala ere, aktiboak eskuratzen diren unean funtsa indarrean dagoen errentamendu- kontratu batean subrogatzen bada eta kontratu horri falta zaion epeak aurreko paragrafoan adierazitako gutxieneko epea gaindetzen ez badu, hizki honetan zehaztutako baldintza betetzat emateko, kontratuaren iraupena luzatu egin beharko da bukatzen denean, aktiboa eskuratu den egunetik kontatzen hasita aipatutako gutxieneko epea lortzen den arte.

- e) Erakunde errentariek ustiapen ekonomiko baten garapenaren ezohiko aktiboei eragiten dietenean, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 13. artikuluko 4. atalean aurreikusitako terminoetan.

- f) Funtsearen ondarea elkar bermatzeko sozietate batek edo kausio-aseguru batez bermatuta egotea, gutxienez, bere zenbatekoaren 100eko 5ean.

Artikulu honek aipatzen dituen Europako epe luzerako inbertsio-funtsek euren helburua gauzatzeko hartzen dituzten funtsak artikulu honetako a) eta e) hizkietan xedatutako baldintzak betetzen dituzten maileguak emateko erabili beharko dituzte euren partaideek ekarpena ordaindu eta urte beteko epean gehienez.

7. artikulua. Publizitatea eta informazio betebeharrak.

1. Arestiko 4., 5. eta 6. artikuluetan xedatutako baldintzak betetzen dituzten eta Titulu honen IV.kapituluan xedatutako zerga neurriak aplikatu nahi dituzten Europako funtsak jakinarazpen bat aurkeztu beharko diote zerga administrazioari, eurak merkaturatu baino lehenago edo bestela, zerga neurri horiek aplikatu nahi dituzten lehen zergaldia hasi aurreko hiru hilabeteetan, arauz ezarritakoa betez.
2. Zerga administrazioak Titulu honen aurreko artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta berrikuntza bultzatzeko Europako funtsa edo jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko edo ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsa dela onartuko du, dagokionaren arabera, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpenaren bidez. Ebazpen hori argitaratu egingo da jendeak ezagut dezan.
3. Arestiko idatz-zatiak aipatzen dituen Europako funtseko Foru Arau honen 4., 5. eta 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzeari buruz zerga administrazioari jakinarazteko aldizkako betebeharrak bete beharko ditu arauz ezarritako baldintza eta epeetan.

IV. KAPITULUA BERRIKUNTZA ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN FINANTZAZIOA BULTZATZEKO ZERGA NEURRIAK

8. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.

Bat.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 48. artikuluari 4. atala eransten zaio, testu hau daukana:

«4. Artikulu honetan xedatutakoa era berean izango da aplikatzekoa berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako, jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsetako eta kapitalizazio produktiboa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzetan, baldin eta 2018ko martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 4., 5. edo 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte funtsok.»

Bi.

90. bis artikulua eranstean zaio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauari, testu hau daukana:

«90. bis artikulua. Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatikoen kenkaria.

1. Zergadunek berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko zergaldian ordaindutako kopuruaren ehuneko 15eko kenkaria aplikatu ahalgo dute martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen badituzte. Halaber, zergadunek kenkari berbera aplikatu ahalgo dute kreditu-entitateetan funts horietako partaidetzak eskuratzeko kontuetan gordetako kopuruengatik.

2. Arestiko idatz-zatiak aipatzen duen kenkaria ezingo da izan urteko 750 euro baino handiagoa.

3. Gordetako partaidetzak edo kopuruak eurak eskuratu edo gordailua ireki eta bost urteko epean mantendu beharko dira.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen edo gordailuaren titular den zergaduna arestiko paragrafoak aipatu epea amaitu baino lehen hiltzen bada.

Zergadunak aipatu epea mantentzen ez badu, finantza-entitateak gordetako zenbatekoak berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko erabiltzen ez baditu, edo biek martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutako baldintzak betetzen ez badituzte, era desegokian kendutako kopuruak ordaindu beharko dira, dagozkien berandutze interesekin batera. Murriztutako kopuru horri horietako edozein betetzen ez den zergaldiari legokiokkeen kuota diferentzialari gehituko zaio eta batuketatik ateratzen den kopurua ordainduko da. Alabaina, zergadunak behar ez bezala murriztutako kopuru horiek, dagozkion berandutza interesekin batera, aurrez, edozein unetan ordaintzeko aukera izango du.

4. Artikulu honetan xedatutakoa ez da aplikatzekoa izango zergadunak eskuratutako partaidetzetan baldin eta partaidetza horiek direla-eta zergadunak aplikatu badu foru-arau honen 48. artikuluko 4. zenbakian ezarritakoa.»

Hiru.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 99. artikuluko 2. idatz-zatiko f) letra aldatzen da. Egungo f) letra g) letra izango da, eta testu hau izango du f) letrak:

«f) Foru Arau honen 90. bis artikuluan xedatutako gehieneko muga zergadun bakoitzeko aplikatuko da, hain zuzen ere artikuluko horretan xedatutakoarekin bat eginez, partaidetzak jasotzen dituztenak edo kreditu-erakundeetan zenbatekoak sartzen dituztenak.»

Lau.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 105. artikuluko f) letra aldatzen da. Egungo f) eta g) letrak g) eta h) letrak izango dira, eta testu hau izango du f) letrak:

«f) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetan inbertitzeagatikoen kenkaria.»

Bost.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 116. artikuluari m) letra eranstean zaio, testu hau daukana:

«m) Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsak kudeatzeko entitateentzat, eta finantza-entitateentzat, funts horietako partaidetzei dagokienez eta haietako partaidetzak eskuratzeko gordetako kopuruekin.»

9. artikulua. Ondarearen gaineko Zerga.

Bat.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren 5. artikuluari Hamabigarren idatz-zatia gehitzen zaio. Hona hemen horren testua:

«Hamabi.

Berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren

4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, zergadunaren ondarean haiek eskuratu eta egun horretatik bost urtez geratzen badira. Zergadunak adierazitako mantentzeko epea betetzen ez badu edo funtseko martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 4. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, salbuespena galduko da eta dagozkion ekitaldietako autolikidazio osagarria aurkeztu eta ateratzen diren kopuruak, berandutze interesekin batera, ordaindu beharko dira.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen titular den zergaduna arestiko paragrafoak aipatu epea amaitu baino lehen hiltzen bada.»

Bi.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren 5. artikuluari Hamahirugarren idatz-zatia gehitzen zaio. Hona hemen horren testua:

«Hamahiru

Jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa sustatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 5. edo 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, dagokionaren arabera, zergadunaren ondarean haiek eskuratu eta egun horretatik bost urtez geratzen badira. Zergadunak adierazitako mantentze-epea betetzen ez badu edo funtseko martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren aurretik aipatutako 5. edo 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, salbuespena galduko da eta dagozkion ekitaldietako autolikidazio osagarria aurkeztu eta ateratzen diren kopuruak, berandutze interesekin batera, ordaindu beharko dira.

Mantentzeko baldintza ez da bete gabetzat joko partaidetzen titular den zergaduna arestiko paragrafoak aipatu epea amaitu baino lehen hiltzen bada.

Gutxienez %5eko partaidetza, zuzena zein zeharkakoa, duen sozietateen bitartez partaidetza horiek zuzenean baditu zergadunak, Zerga horren zerga oinarrian murrizketa aplikatzeko eskubidea izango du. Zenbaki honetan zehaztutako Europako funtsetako partaidetzak dituen aktiboa duen sozietateen zergadunak duen partaidetzaren portzentajea bider partaidetzaren balioaren parekoa izango da murrizketa horren zenbatekoa, murrizketa horren ondorioz zerga oinarri negatiboa sortarazi gabe.»

Hiru.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren 36. artikuluko 2. idatz-zatiari hirugarren paragrafo bat gehitzen zaio. Hona hemen horren testua:

«Halaber, autolikidazioan berrikuntza bultzatzeko, jarduera ekonomikoa finantzatzea sustatzeko eta ekoizpen kapitalizazioa bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak, Ondarearen gaineko Zergari buruzko otsailaren 27ko 2/2013 Foru Arauaren 5. artikuluko 12. eta 13. idatz-zatietan xedatutakoaren arabera salbuetsita daudenak edo zerga honen zerga oinarria murrizteko eskubidea ematen dutenak jaso beharko dira.»

10. artikulua. Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko martxoaren 25eko 4/2015 Foru Arauaren 12. artikuluari 7. atala gehitzen zaio. Hona hemen horren testua:

«7. Jarduera ekonomikoaren finantzazioa bultzatzeko edo ekoizpen kapitalizazioa sustatzeko Europako funtsetako partaidetzak, martxoaren 21eko 02/2018 Foru Arauaren 5. edo 6. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak, oinordetza edo legatuaren bidez eskuratzea, dagokionaren arabera, kausatzailearen ondarean Zerga sortzen den egunaren aurreko urtebetean, gutxienez, egon balira.»

11. artikulua. Dokumentuen bidez frogatzea eta informazio betebeharrak.

Kapitulu honetan jasotako zerga neurriak aplikatzeko zergadunek haien frogagiriak aurkeztu beharko dituzte. Foru Arau honen 4., 5. eta 6. artikuluek aipatzen dituzten funtsetako eta berrikuntza bultzatzeko Europako funtsetako partaidetzak eskuratzeko erabili behar diren banku-erakundeetako gordailuetako partaidetzei buruz jakinarazteko betebeharren edukia erregelamenduz garatuko da, eta hura betetzeko eskatu ahalko da, kasuan kasu, zergadunei Foru Arau honetan jasotako zerga neurriak aplikatzeko eskubidea ematen duten gordailuak egiten diren finantza-erakundeen bidez.

[...]

AZKEN XEDAPENA

Bakarra. Indarrean jartzea.

Foru arau hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean. Nolanahi ere,

- Foru-arau honen I. tituluan ezarritakoak 2. eta 3. artikulua izan ezik [...], 2018ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak.
- Eta foru-arau honen I. tituluko 2. eta 3. artikuluetan [...], berriz, 2018ko urtarrilaren 1etik hasten diren zergaldietan sortuko ditu ondorioak.

Bilbon, 2018ko martxoaren 21ean.